



Erakundearen egituraren azterketa. Portuko Agintaritzak Langile-taldea Egokitzeko Plana du ezarrita 2009ra arte.

- ❑ 2007ko abenduaren 31n, Pasaiako Portuko Agintaritzak 151 langile zituen, eta, horietako 17 hitzarmenetik kanpoko langileak edo zuzendaritza-taldeko langileak dira. Talde horretan, presidentea eta zuzendaria ere sartzen dira. 151 langile horiek honelaxe daude banatuta: 71 bulegoetako langileak dira; 50, zaintza-zerbitzukoak; 21, mantentze-lanetako brigadetakoak; eta 6, itsas seinaleen mantentze-lanetakoak.
- ❑ Azken urteotan, Portuko Agintaritzak ahalegin handia egin du, zerbitzuak zuzenean portuko langileen bitartez eskaintzen dituen eredua (tren-trakzioa, drainaketa, garabien erabilera eta mantentze-lanak, kaien garbiketa, gordetegi frankoa...) portu-sistemako esparru estrategikoko "landlord" ereduaren arabeko egiturara egokitzeko. Horretarako, azken 15 urteotan, zenbait egokitzapen-plan egin dira, langile-taldea ahalik eta ondoen egokitzeko dimentsionamenduaren eta prestakuntzaren inguruko benetako premietara.
- ❑ Langile-taldea egokitzeko politikaren ondorioz, apurka-apurka egiturako langile-taldea murriztu egin da, eta, gaur egun, murrizketa urteko 7 langilekoa da batez beste, hau da, %32,9 jaitsi da 11 urtean.




- ❑ Langile-taldea Egokitzeko Planean, berrikuntza-programa ere ezartzen da, amortizatutako lanpostuen %30 berriro betetzen baitira. Hori dela-eta, langile-taldea gaztetzen ari da.

Organigrama berregituratzen ari dira, helburu estrategikoei ekiteko.

- ❑ 2006ko hauteskunde sindikaletako emaitzaren arabera, honako kide hauek ditu enpresa-batzordeak: LABeko sei ordezkari, CCOOko bi ordezkari eta UGTko bat. 2007ko maiatzean, Pasaia Portuko Agintaritzak enpresa-hitzarmena negoziatu eta sinatu zuen,, 48/2003 Legean eta II. hitzarmenean xedatutakoari jarraituz.
- ❑ Gaur egungo organigramak behar den moduko egitura eratzen du, hurrengo urteetako helburu estrategikoei ekiteko. Horretarako, kudeaketaren kalitatearen arloko eta azpiegitura-saileko lanpostu hutsak beteko dira, 2008ko lan-eskaintza publikoaren bidez. Bi lanpostu horiek erantzukizun berezia dute Pasaia Badia Biziberritzeko Proiektuan eta kanpoko portuaren eraikuntzan.
- ❑ Hurrengo urteetan, organigrama apurka-apurka berregokituko da, harik eta oinarrizko hiru ardatzak orekatu arte: ustiapena, kudeaketa/plangintza (merkataritza-arloa barne) eta azpiegiturak. Horrez gain, funtsezko zerbitzuak sendotu behar dira kontratazio berrien bitartez: kalitatea eta hizkuntza-normalkuntza, esaterako.
- ❑ 2009rako helburuen barruan, gogobetetzeari buruzko inkesta egingo diete langileei, hobekuntza-arloak zein diren jakiteko eta antzemateko asmoz. 2005-2009ko Langile-taldea Egokitzeko Plana amaitzear dagoenez, etorkizuneko helburuei begira, zenbait ekintza jarriko dira abian, langileei enpresaren lerro estrategiko berriak azaltzeko eta bertan inplikatzeko.

Organigrama.



2006ko produktibitate orokorra langileko 86,8 mila eurokoa izan zen, 1997-2006 aldiko handienetakoa.

- ❑ **Produktibitate-ratioak** aztertuz gero (negozio-kopurua / batez besteko langile-kopurua eta ustiapen-gastuak / azken urteotako batez besteko langile-taldea), lehenengo kasuan Pasaiako portua Estatuko Portu Sistemako batez bestekoaren azpitik dago (80,4 mila euro; sistemak, berriz, 158,6 mila euro zuen batez beste 2005ean). Horren arrazoia, ziur asko, portuan maneiatzen diren merkantzien ezaugarriak dira (solteko salgai solidoak, tasengatik diru-sarrera gutxiago sortzen baitituzte). Ustiapen-gastuei dagokienez, portua sistemako batez bestekoaren gainetik dago (2005ean 43 mila euro gastatu ziren langileko; sistemak, berriz, 38,1 mila euro gastatu zituen batez beste ekitaldi berean), langileei ordaindutako kalte-ordainengatik. Beraz, egoera hori ez da berriro gertatuko etorkizunean.
- ❑ **Produktibitate orokorra** 2004. urtean iritsi zen balio handienara (langileko 91,5 mila euro irabazi zuen), eta, 2006an, 1997-2006ko balio handienetakoa lortu zen; hau da, langileko 86,8 mila euro.
- ❑ **Erakundearen funtzionamenduari** eta kalitate-mailei dagokienez, Portuko Agintaritzak Kalitatea Kudeatzeko Sistema du ezarrita 2004ko martxotik, Lloyd's Register Quality Assurancek ziurtatutako ISO 9001-2000 arauaren arabera, automobilen trafikoarekin zerikusia duten portuko zerbitzuak kudeatzeko. Oso egokia izango litzateke aztertzea ziurtagiri hori portuko trafiko guztietan edo, gutxienez, balio erantsi handiko trafikoetan ezarri behar den ala ez; esate baterako, paperean eta produktu siderurgikoetan.
- ❑ **Kudeaketa-tresnei** dagokienez, Pasaiako portuak oso sistema teknologiko aurreratuak ditu, eta bat datoz teknologiaren gaur egungo egoerarekin, bai informatika eta komunikazio arloko azpiegituri begira (zuntz optikoko sarea, wireless sarea, kable-sarea eta zerbitzari korporatiboak), bai tresnei eurei begira. Eguneratzeko ahalegina etengabea da, erabiltzaileentzako zerbitzuen kudeaketa eta kalitatea ahalik eta onenak izan daitezen. Era berean, hobekuntza-arloak hauteman eta landu egiten dira; esate baterako, Kontrol Zentro berria sortzea (abian dago), eta portuko komunitatearekin informazioa sistema telematikoz trukatzeko plataforma zabaltzea eta hobetzea eta, horren ondorioz, operadoreek emandako datuak portuko kudeaketa-sisteman sartzeko automatizatzea eta emandako informazio-fluxuak automatizatzea.

Pasaiako Portuko Agintaritzak kalitate-maila handiak eduki nahi ditu.

Kalitatea eta hizkuntza-normalizazioa

- ❑ **Lehen esan dugunez**, Portuko Agintaritzak kalitate-estandar handiak eduki nahi ditu. Hain zuzen ere, 2004an Pasaiako portuak Lloyd's Register Quality Assuranceren **ISO 9001-2000** arauaren arabeko ziurtagiria lortu zuen Kalitatea Kudeatzeko Sistemari. Horren bitartez, **automobilen trafikoarekin zerikusia duten zerbitzuak kudeatzen dira**, Pasaiako portuan diharduten balio erantsi handieneko trafikoetako da eta.
- ❑ Sistema hori ziurtatutakoan, egokia izan liteke ziurtagiri hori portuko trafiko guztietan edo, gutxienez, balio erantsi handiko trafikoetan ezartzea; esate baterako, paperean eta produktu siderurgikoetan.
- ❑ Portuan diharduten bezeroek Portuko Agintaritzaren kudeaketari buruz duten iritzia zein den jakiteko asmoz, 2001. urteaz geroztik, bi urtean behin, **bezeroen gogobetetze-maila neurtzeko** azterketak egiten dira, hobekuntza-arloen eta lan-lerroen plangintza hobetzeko. 2007an egindako inkestetan eta elkarrizketetan, bezeroen arretari eta Portuko Agintaritzak emandako informazioari buruzko alde onak nabarmendu zituzten.



- ❑ Azken urteotan, Pasaiako Portuko Agintaritzak ahalegin handia egin du hizkuntza-normalizazioan, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta hizkuntza ofizialei buruzko indarreko legeria betetzeko. Helburu horiek **“Pasaiako Portuko Agintaritzaren Hizkuntza Politika”** agirian azaldu ziren.
- ❑ Lan horien ondorioz, **Hizkuntza Kudeaketarako Sistema** ezarri da, eta lau jarduera-ardatzetako irizpideak zehaztu dira: hizkuntza-paisaia, barne-harremanak, kanpo-harremanak eta hizkuntza-gaitasuna.

Kalitatea eta hizkuntza-normalizazioa.

- ❑ Gaur egun, **2008-2010eko III. Euskara Plana** egiten ari dira. Oraindik, onartu gabe dago, eta, seguruenik, 2008ko irailaren 1etik aurrera ezarriko da. Plan horrek Hizkuntza Kudeaketarako Sistema sendotzea du oinarritzeko helburu. Horretarako, ezarritako prozedurak ebaluatu, etengabe hobetu eta garatu egiten ditu. Horrez gain, ekintza hauek ere garatzen ditu: hizkuntza-irizpideak kontratatutako enpresetan zabaltzea; lankidetzaproiektuak garatzea instituzioekin, portuko komunitatean irizpideak ezartzeko edo langileen hizkuntza-gaitasuna sustatzeko.
- ❑ Epe luzeari begira, Pasaiako Portuko Agintaritzak **Urrezko BIKAIN Ziurtagiria** lortu nahi du, PPAko eragin-eremukoko portuko lan-esparruan euskararen erabileraren bikaintasuna eta kalitatea onesteko.
- ❑ 2008tik aurrera, Pasaiako Portuko Agintaritzak kanpo-ebaluaziorako sistema ezarri du borondatez, portuan garatzen dituen jardueren hizkuntza-erabilerak egiaztatuz, gizarte- eta lan-arloko beste esparru batzuetan erabiltzen diren bikaintasun- eta kalitate-irizpideen arabera. Jarduera horren helburua elementu soziolinguistikoa kudeaketaren balio erantsia izatea da, lanbide-prestakuntza adierazten baitu, bai eta Pasaiako Portuko Agintaritzak jarduera garatzen duen komunitatera egokitzeko eta zerbitzua eskaintzeko gaitasuna ere.
- ❑ Beraz, Plan Estrategikoan hiru fase zehazten dira, Urrezko BIKAIN lortzeko helburu orokorra bete ahal izateko:
 - BIKAIN beltza, 2009. urtearen amaierarako.
 - Zilarrezko BIKAIN, 2012. urtearen amaierarako.
 - Urrezko BIKAIN, 2015. urtearen amaierarako.
- ❑ Pasaiako Portuko Agintaritzak Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana edukiko du indarrean urteko kudeaketa-planean, lehen adierazitako helburu horiek betetzeko asmoz. Planean, zenbait proposamen zehazten dira: PPAko langileen hizkuntza-gaitasuna sustatzea, enpresan euskarazko kudeaketa-tresna informatiko eguneratuenak edukitzea, eta portuko komunitate osoan euskararen erabilera suspertzea.

Erakundearen azterketa. Segurtasuna eta ingurumena.

Segurtasuna

- IMOko zehaztapenen arabera, Portuko Agintaritzak Portuko Instalazioak Babesteko Plana du ezarrita portuko merkataritza-jardueretarako.
- Eremua hesiz inguratuta dagoenez, baimenik ez dutenek ez daukate bertan sartzerik. Merkataritza-portuko bi sarbide operatiboak, dartsenak eta Portuko Agintaritzaren eta Itsas Kapitaintzaren bulegoak Portuko Agintaritzako zaintzako langileek kontrolatzen dituzte. Era berean, oinezkoentzako ateetan ere, txartel-irakurgailuak daude jarrita, baimendutako langileak era automatikoa sartu daitezke.
- Bideo-zaintzako sistemak eremu osoa kontrolatzen du, eta, aldi berean, portuko lanen jarraipena ere egiten du.
- Portuko Agintaritzak 47 zaintza-efektibo ditu.
- Segurtasun-sisteman, ordea, badago ahuleziarik, ez baitago portuko edozein lekutatik igorritako segurtasun-seinaleak zentralizazen, jasotzen eta prozesatzen dituen Kontrol Zentrorik. Gabezia horren irtenbidea aztertzen ari dira.

Ingurumena

- Portuko Agintaritzak bere esku dagoen guztia egiten du, lana garatzeko orduan ingurumen-parametro egoki guztiak betetzeko. Izan ere, horrelaxe adierazten die ingurunean eragin gehien duten portuko operadoreei. Gogoan izan behar dugu Sobrinos de Manuel Cámara, S.A. eta Estiba Algenosa, S.A. enpresek ingurumena kudeatzeko prozedurak dituztela ezarrita.
- Ingurumenean eragin handiena duten trafikoetako txatarrarena da, eta eragin hori gutxitzeko, zenbait neurri jarri dira abian; esate baterako, ur-kanoi malutatzaileak, zamalanetan sortutako hautsa murrizteko; merkantzia hori mugitzeko ordu zehatzak; eta bideak ureztatzea.
- Orain dela gutxi, Portuko Agintaritzak, portuko inguruneke toki-administrazioek, Eusko Jaurlaritzak eta enpresa operadoreek lan-talde bat sortu zuten, portuko jardueren eraginak murrizteko alternatibak proposatzeko eta irtenbideak aztertzeko.

Erakundearen azterketa. Segurtasuna eta ingurumena.

- Itsas kutsadurari dagokionez, Portuko Agintaritzak Portuko Gertakizunen Barne Plan Integratua dauka, indarreko arategiaren arabera emakidadunek eta baimenduek eduki behar dituzten gertakizun-planetatik aparte.
- 2005ean, Portuko Agintaritzak “**Pasaiako Portuko Hasierako Ingurumen Azterketa**” egin zuen. UNE 150103 arauan (2004ko otsaila) agertzen den hasierako puntua da honi buruz: “Ingurumena Kudeatzeko Sistemak. Portuko inguruneetan ingurumena kudeatzeko sistemak UNE-EN-ISO 14.001 arauaren arabera ezartzeko gida eta EMAS araudian erregistratzeko eskakizun gehigarriak”.